

Jhs.

Lekaroztik 1954-VIII-18

Pierre Lafitte Jaun Begiragarria

Ustaritzen

Jaun agurgarria: Bere tenorean artu nuen zure gutuna, baño neretzat berandu zen orrat yuateko bear nituen agiriak ateratzeko eta.

Dena dela, biotz-biotzetik eskerrak ematen dizkizut nitaz oroitu zaralako. Zuek beti lan ta lan ta batez ere zu zure HERRIA atsegin eta ongille ortan.

Eta oraintxe gogora datorkit gauza bat: guk ZERUKO ARGIA bialtzen dizuegu; ustez artzen duzue. Guk berriz edo obeki errateko IRUÑAN (Zeruko Argia-n) ez dute HERRIA artzen; ez dute zerbaki bat ere artu. ¿Zer ote da? ...

Komentu ontara berriz (Aita bateri edo biri) etortzen zaie zure HERRIA. Iruñara bialdu bearrean onat igorri nai ba zenduke... Zeruko Argiarentzat mesede aundia izango litzeke. ZUZENBIDEA: R.P. Buenaventura de Oyeregui - PP. Capuchinos - Baztán

Lecároz (Navarra) Espagne

Eskerrak denagatik. Otoitz egin ta egiten dituzun ainbertze ~~ex~~ lan on ta ederrengatik aunitz

maite zaituan oneri nai aña agindu

Oierregiko A. Buenabentura
O. F. M. Cap.